



## **Hasier LARRETxea**

*Eguraldi lainotsua*, 2001, Pamiela

*Bazaudete?*, 2003, Metaziri

*Azken bala (La última bala)*, 2008, Point  
de Lunettes

## Una vida dentro de otra\*

Hasier LARRETXEA

Tengo oído que los versos de la poesía son como los hachazos. La terminación de los versos, un nuevo corte en el tronco. La supuración en las pieles secas, la resina.

Desde que nací, he vivido enraizado plenamente con el deporte rural. En los cerrados bosques me perdía con mi padre y mi tío, *aizkolaris*<sup>1</sup>, entre el eco de los hachazos, y su reflejo en la penumbra provocada por las ramas. De pueblo en pueblo, de fiesta en fiesta, de campeonato en campeonato. Siempre he tenido cerca los *aizkolaris* y los deportistas rurales más famosos. Mi padre, mi tío. La piedra, el pueblo. Una muestra del modo de vida silvestre.

Todavía me hacen recordar, cómo, con tres años, en el campo de fútbol de Atocha de San Sebastián, después de ver a los *aizkolaris* australianos, comencé con la modalidad del corte vertical. En la corteza del tronco, nada más que arañazos de un gato.

Un tipo de hacha para astillas grandes, la otra para astillas pequeñas. Como en la literatura. La novela y la poesía. El gigante y la polilla.

**196** Nací para ser deportista rural. ¡Cuántas veces me ha dicho mi padre que tengo planta para ser un excelente harrijasotzaile<sup>2</sup>! De pequeño, levantaba piedras de madera, estando él a mi lado.

La tensión de las grandes competiciones, ha mermado con la colección de txapelas<sup>3</sup> del salón. El padre, alerta, sosteniendo un hacha entre los brazos.

El verso, ¡zas!, en el corazón del tronco, de igual modo que el hacha afilada proyecta el corte evitando los nudos. La pluma es mi hacha. La fortaleza genética de la gente de la montaña. El ser humano y la naturaleza. De la generación sucesora de hombres y mujeres surgidos en el acantilado de la naturaleza.

He ido configurando con las palabras las imágenes y formas que mi padre plasma en la madera, en una competición de jóvenes *aizkolaris*, tras irme sin concluir el trabajo. Tiñendo los trozos de madera con las gotas de sangre que se me deslizaban por las manos.

A pesar de no querer hacerlo, me presenté. Estuve. Lo intenté. Para mostrar que no nací para eso. Desde entonces, mi padre no ha intentado más veces que yo fuera un deportista rural. A

---

\* Traducción realizada por José Antonio Gómez Manrique. Biblioteca Pública de Pamplona-San Jorge

1. Deportistas rurales que practican el corte de troncos con hacha (N. del trad.).

2. Deportista rural que practica el levantamiento de piedra (N. del trad.).

3. Boina tradicional, que se ofrece como trofeo en deportes rurales (N. del trad.).

## Bizitza bat beste baten baitan

Hasier LARRETXEA

**E**ntzun izana dut poesia lerroak aizkorakadak gisakoak direla. Bertso amaierak, enborrean ebakidura berri bat. Larruazal idortuetan zornea, erretxina.

Jaio naizenetik, bete-beteen bizi izan dut herri kirolaren sustraia. Baso hertsietan aita eta osaba aizkolariekin galdu izan naiz, aizkorakaden oihartzuna, adar arteko iluntasunean erreflexu. Herriz-herri, festaz-festa, txapelketaz-txapelketa. Aizkolari eta herri-kirolari ezagunenak ondoan izan ditut. Nire aita, nire osaba. Harria, herria. Bizimodu basatiaren erakusketa.

Oraindik oroitarazten didate, nolatan, hiru urterekin, Donostiako Atotxa futbol-zelaian, aizkolari australiarrak ikusi ondoren, nola hasi nintzen zutikako aizkora modalitatearekin. Enborraren azalean, katu baten hatzmarkadak baino ez.

Ezpal haundirako aizkora mota bat, ezpal ttipirako bestea. Literaturan bezala. Nobela eta poesia. Mamutzarra eta sitsa.

Herri-kirolaria izateko jaioa nintzen. Zenbatetan erran didan aitak harrijasotzaile bikaina izateko planta dudala. Ttikitan, egurrezko harriak altxatzen nituen, bera ondoan nuela.

197

Txapelketa haundietako tentsioa, saloiko txapel kolekzioarekin lermatu da. Aita, zurt, aizkora batekin beso gainean.

Bertsoa, zas, enborraren bihotzean, korapiloak sahiestuz ebakia egiten duen zorrozutako aizkoraren gisara. Luma aizkora izan dut. Mendialdeko sendotasun genetikoa. Gizakia eta natura. Naturaren labarrean sortutako gizon-emakumen ondoko belaunaldikoa.

Aitak egurrarekin eratzen dituen irudi eta formak hitzekin eratzen joan naiz, aizkolari gazteen txapelketa batean, lana bukatu gabe joan ondotik. Egur xaflak eskuetatik laprast egiten zidaten odol tantekin bustiz.

Nahiz eta egin nahi ez nuen zeozer izan, aurkeztu nintzen. Izan nintzen. Saiatu nintzen. Erakusteko, ez nintzela horretarako jaio. Orduztik, aita ez da ni herri-kirolari bat izan nadin gehiago saiatu. Nahiz eta berak begietako dizdiran bizi. Mendien arteko sinbiosia sentitu. Basoko gizona da. Basajauna. Euskaldun peto-petoa.

Hala, zeozertan iaioa izan behar nuen, egunero egurrak xehatzeko ariketa alde batera uzteko. Hala, gazte-literatur sariak erdiesten joan nintzen. Lasai egoteko arrazoi ziren. Lasai uzten ninduen horrela.

Idatzi, bizitza ulertzeko ahaleginean, mina kanporatzeko. Landa ingurunean, salbu mantenduko ninduen burbuila zen literatura. Aldentzen, eta babesten ninduen harribitxia.

pesar de que él sigue viviendo con el brillo en los ojos. Sintiéndose en simbiosis con los montes. Es un hombre del bosque. Un basajaun<sup>4</sup>. Un vasco auténtico.

Por eso, debía ser hábil en algo, para dejar a un lado el ejercicio diario de cortar la madera. Así, comencé a ganar premios de literatura juvenil. Eran las razones para estar tranquilo. La manera de que me dejara tranquilo.

Escribir, en un intento para comprender la vida, para ahuyentar el dolor. En el entorno del campo, la literatura era la burbuja que me mantendría a salvo. La piedra preciosa que me alejaba y me protegía.

“Nunca he visto tanta vida en una mirada tan triste”. Es la frase de cabecera de la época en la que comencé a escribir. En todo momento me sentía a mí mismo, a mi cuerpo, como a un extraño. Encadenado, debilitado, un adolescente sin vida. Sin esperanza, atrapado desde las entrañas.

Así podría huir de la realidad sin empuje ni motivación, hasta transformarla en el empuje y la motivación de esa realidad.

La palabra convertida en aliento. Cada frase, una punzada contra el decaimiento.

Es día de fiesta en el pueblo. En la lejanía, los *bertsolaris*, el baile. Las cantilenas de una época. El padre, estornudando en la cocina. La madre, con la abuela triste por los achaques de la vejez, en la plaza.

## 198

Al dejar el libro publicado encima de la mesa, mi padre me dijo que me había hecho un hombre. Mi hermano que me compraría la tarjeta para la comida de las fiestas del pueblo. Hace años que no me acerco a las fiestas del pueblo.

Sacudo los fantasmas de la memoria con la poesía. Coso las rasgaduras de la ausencia. Asigno una coreografía refinada alrededor de la vida, admitiendo los restos de claridad. A pesar de ocuparme en los poemas de la parte oscura y dolorosa del ser humano, no lo hago más que para mantener la pureza de la esencia.

La literatura como purificación. Al modo de una racha de aire de otoño. Se llevará la hoja. En cambio, no la rama. La raíz.

Colorear los frutos con los significados, la esencia de las ganas de vivir.

Las respuestas, antes que las preguntas.

Una vida dentro de otra. Como los anillos del tronco.

---

4. Señor del bosque o de la selva, en la mitología vasca (N. del trad.).

“Ez dut inoiz ere, halako begirada tristean hainbesteko bizitza ikusi”. Idazten hasi nintzen garaia-ri buruzkoa da esaldia. Uneoro arrotza sentitzen nuen nire burua, gorputza. Kateatua, indarge, bizitzarik gabeko nerabea. Esperantzarik ez, atrapatzen ninduen zilbor-hestetik haraindi.

Bultzada eta motibaziorik gabeko errealitatetik ihes egin nezakeen horrela, errealitate horretako bultzada eta motibazioa bilakatu arte.

Hitza arnas. Esaldi bakoitza, gainbeheraren kontrako zizta.

Besta eguna da herrian. Urrunean, bertsolariak, dantzaldia. Garai bateko leloak. Aita, doministikuka sukaldean. Ama, zahartzaroaz triste den amonarekin plazan.

Gizondu nintzela erran zidan aitak, argitaratutako liburua mahai gainean uzterakoan. Anaiak herriko festetako bazkariko txartela erosiko zidala. Urteak dira ez naizela herriko festetara hurreratzen.

Oroimenaren mamuak astintzen ditut poesiarekin. Ausentziaren petatxuak josi. Bizitzaren inguruan koreografia findua esleitu, argitasun erretoak utziz. Nahiz eta gizakiaren alderik ilun eta mingarriei buruz ari poemetan, esentziaren purutasuna mantentzeko baino ez dut egiten.

Literatura garbiketa bezala. Udazkeneko haize boladaren gisara. Eramanen du hostoa. Ez aldiz, adarra. Sustraia.

Fruituak esanahiekin margoztu, biziminaren zukua.

Erantzunak, galderen aurretik.

Bizitza bat beste baten baitan. Enborraren eraztunak bezala.